

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernua kudeaketa-lanak egiten hasi da Nepalen dauden nafarrei buruzko egoeraren berri izateko

Oraingoz, hamaika pertsona topatu ditu, haiek guztiak ongi daude, eta bere laguntza eskaini du kaltetu gehiago izan daitezkeelakoan

Lunes, 27 de abril de 2015

Nafarroako Gobernuak zenbait jarduera egiten hasi da Nepalen gertatutako lurrikara dela-eta; jarduera horien artean, alde batetik, herrialde horietan dauden nafarren egoeraren berri izateko egindako kudeaketa-lanak daude, eta bestetik, Kanpo Politikarako Ministerioari eskainitako laguntza teknikoa; aldi berean, berreraikitze-lanak egiteko laguntza ekonomikoa ematea aurreikusten du.

Xede horrekin, Lehendakaritza, Justizia eta barneko kontseilari Javier Morrás buru zela koordinazioko bilera bat egin da gaur goizean.

Kaltetuta izan daitezkeen nafarrei dagokienez, Gobernuak familiakoei eta ahaideei 112 telefono-zenbakira deitzeko eskatu die, eta bere burua eskaini du kaltetuei buruzko informazioa bildu eta haien itzulera bizkortzeko. Helburu horrekin, Kanpo Politikarako Ministerioarekin etengabeko harremana du azken datuen berri izateko eta familiakoei helarazteko.

Oraingoz, Foru Gobernua iragan larunbatean, lurrikara gertatzean, Nepalen zeuden hamaika nafar topatu ditu –zazpi gizon eta lau emakume–. Bederatzi mendizale dira, Berriozarko zortzi lagun eta Iruñeko beste bat, bai eta bi kooperante ere, gizon eta emakume bat, Iruña eta Noaingoak, hurrenez hurren. Guztiak onik daude.

Zehazki, Berriozarko zortzi mendizaleak Katmanduko hotel batean daude eta Iruñeko mendizalea kanpamentu nagusian dago Annapurnara igotzen asmoz. Bestalde, kooperanteetako bat Finlandiako enbaxadan dago, eta bigarrena, berriz, Nepalgo hiriburuan ere jarritako kanpamentuan.

Gainera, Nafarroako Gobernuak Kanpo Gaietarako Ministerioaren esku jarri ditu Nafarroako Larrialdi Agentziak (NLA) dituen salbamendu eta berreraikitze baliabideak, Europar Batasunak antolatuko duen laguntza-esparruaren barnean.

Azkenik, Foru Gobernua berreraikitze-lanei laguntzeko aparteko laguntza ekonomiko bat ematea aztertuko du.